



# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Bezeroei heldu ahal izateko, **hitzaldiak** egingo ditugu, **kartelak** sortuko ditugu... Gure enpresa aurrera ateratzea lortu behar dugu, eta bezeroei heltzen jakin behar dugu, horretarako **kontuan hartu behar ditugu hurrengo baliabideak:**

## → Baliabide fisikoak:

- Gure makilak **ekoizteko lantegi** bat izango dugu. Bertan makilak ekoizteko **makineria** guztia edukiko dugu. Lantegian, lehengaiak sartuko dira eta **produktua bukatua aterako** da.
- Lantegitik, gure **biltegira helduko** da gure produktua bukatuta. Bertan makila guztiak jasotzen ditugu, **kutxetan gordetzen** ditugu eta **bidaltzeko prestatzen** ditugu.
- **Bulego** bat izango dugu ere bai. Bertan ugazabek **web orrialdea** zuzentzen dute eta jasotako galdera guztiak erantzuten dituzte, bezeroak informatzen dituzte, eskaerak jasotzen dituzte... **Sare-sozialak**, web orrialdea... aurrera eramango dira ere. Jasotako eskaera guztiak bidaltzen dira **postaren bidez**, bezeroen informazio guztiarekin, hauen **produktuaren egoera jarraitzeko** eta bezeroekin komunikatzeko.



- **Garraio-enpresa** batekin batuko gara; hau da, enpresa bat **azpikontratatu**ko dugu. Garraio enpresara ailegatuko dira lantegitik produktu guztiak eta haiek enkargatuko dira **bezeroei banatzeaz**.



## → Baliabide intelektualak:

- **Gure marka propioa** sortuko dugu, kasu honetan makila marka bat: **LERIA MAKILAK** izena dauka.
- Makilak gure **web orrialdean** (<https://leriamakilak.mycomandia.com/>), antolatutako **hitzaldietan** eta **farmazietan salduko** dira. Gure asmaketa propioa direnez, Larrialdietarako makilen ideia **patentatuko** dugu;



horrela ez du inork gehiago aukera izango hauek ekoizteko ezta saltzeko, **bakarrik guk** izango dugu.



#### → Giza baliabideak:

- LERIA MAKILAK enpresan **bakoitzak bere ahalmenak erabiliko** ditu proiektua aurrera ateratzearren. Kasu honetan Maria eta Leire **negozioan, finantzaketan** eta **inbertsioan** zentratuko dira eta marka aurrera eramaten saiatuko dira, oso onak direlako negoziatzen bezeroekin eta ekonomiari buruz jakinduria handia daukatelako ere.
- Maria informatika gailentzen da. Badaki, nola egin behar dugun **web orrialdearen diseinua** jendearen arreta lortzeko, eta kartelak diseinatu ditu ere.
- Makilen ideia Mariarena eta Leirerena izan da, eta hauek nola sortu behar duten jakiteko **laguntza jaso** dute.
- Enpresan, **langile kualifikatuak** egongo dira. Hasieran, 2 hilabetez, 5 ingeniari edukiko ditugu, produktuaren frogak egiteko; ondoren, 3 langile ekoizpenerako edukiko ditugu. Garraio enpresan (*Correos*), langile kalifikatuak egongo dira ere bai.



#### → Finantza baliabideak:

- Bezeroek egindako erosketak guztiak Interneten bidez, hitzaldien bidez eta farmazietan egingo dira. Web orrialdeetako erosketak **bankuko txartelarekin** egingo dira; beraz, dirua bankura helduko zaigu. Bezeroek, errenboltso bidez erosteko aukera izango dute ere; hau da, web orrialdearen bidez erosi





dezakete eta produktua jasotzean ordaindu dezakete bertan momentuan.

- Hasieran, enpresaren gastuak ordaintzeko gure **aurrezkiak** erabiliko ditugu eta **bankuari kreditu** bat eskatuko diogu. Lehengaiak erosi behar ditugu (materialak makilak egiteko), langileak ordaindu behar ditugu (ekoizpenean arduratzen diren langileak, garraio-enpresaren azpikontratazioa...), instalazioen errenta ordaindu behar dugu (lantegiak, bulegoak...), makineria ordaindu behar da (hau bakarrik behin ordaindu behar da)...
- Denbora pasa ahala saltzen dugunaren diruarekin **enpresaren gastuak estaltzen joango** gara.
- **Gure enpresa errentagarria izatea lortu behar dugu**, bestela hasieran jarritako diru guztia galduko genuke.